

IKASTOLAKO JANGELA ZERBITZUA

Ikastolako jangelan 2016-2017 ikasturtean 504 ikaslek bazkaltzen dute, ikasleen %69ak. Horietatik %94ak astean 5 edo 4 egunetan bazkaltzen du bertan, ohiko bazkaltziarrak, eta %6ak 3 egun edo gutxiagotan, ez ohiko bazkaltziarrak. Hiru zentroetan dago jangela, Meaben, Bidebietan eta Laubidietan. Meaben sukaldea dago, eta, beraz, bertan prestatzen da janaria, *Ausolan* enpresak ekarritako elikagaiekin; Bidebietara eta Laubidietara, aldiz, enpresak ekartzen du janaria Irungo sukaldetik.

Zerbitzu honetan lanean ari diren **langileak** honako hauek dira:

	MEABE	BIDEBIETA	LAUBIDIETA
SUKALDEA	4 sukaldari 18 ordu egunean	Officeko 1 3 ordu egunean	Officeko 3 17 ordu egunean
BEGIRALEAK	10	4	10
Jangelako arduraduna: irakasleetako 1			

Langile kopurua urtero zehazten da bazkaltziar kopuruaren arabera.

Guztia antolatu eta ikasturtean zehar jarraipena egin ahal izateko, "Jangela Batzordearen" bilerak egiten dira hileroko, eta baita arduradunaren eta langileen arteko bilerak ere.

Ondorengo hauek dira **Jangela Batzordearen helburu nagusiak**:

- Jangela ere heziketa leku dela bermatzea, elikaduraren garrantzia eta janariarekiko jarrera egokia landuz. Helburu hori era honetan lantzen da:
 - *Jangelako higiene ohiturak garatuz.*
 - *Bazkaltzeko orduan elkar errespetatuz eta giro ahalik eta atsegina lortzen saiatuz.*
 - *Elikadurak pertsonaren osasunean duen eragina landuz.*
 - *Jangelako ardurak partekatuz.*
 - *Helduekiko harremanak zainduz.*
- Janaria kontrolatzea: kantitatea, kalitatea...
- Hiru jangelen funtzionamendu egokia ziurtatzea.
- Bazkal ondorengo edo aurreko denbora ongi antolatzea, eremuak zehaztuz jolas eta denbora-pasa desberdinak eskainiz.
- Urtero bazkaltziar kopurua aztertzea eta beharrezkoa balitz, neurriak eta erabakiak hartzea.
- Funtzionamendua (kuotak, ohiko / ez ohiko, musikakoak...) eten gabe berrikustea.

Bestalde, oso garrantzitsuak dira **arduradunaren eta langileen arteko bilerak**. Kontuan hartzen dugu beti jangelan geratzen den ikaslearentzat jangela garaia heziketa prozesuaren ekintza bat gehiago dela; eta, beraz, jangelan ere, bazkaltzeaz gain, harremanak, ohiturak, arauak, etab. lantzen

direla. Horregatik, jangelako langileen jarduna ez da ikastetxeko heziketa proiektutik aldentzen. Honako hauek dira bilera horietako eginkizun nagusiak:

- *Janariaren eta denbora librearen inguruko irizpideak adostu.*
- *Kezkak elkar jarri eta zalantzak argitu.*
- *Koordinatu.*
- *Elikadurarekin zerikusia duten artikulua eta liburuak irakurri eta komentatu.*

Bazkaltzerakoan ikasleak denetik jaten, gustukoa ez badu ere probatzen, begiralearekin adostutakoa jaten, mahaian behar den moduan egoten, era egokian gauzak eskatzen, itxaroten, ondokoak kontuan hartzen, laguntzen, parte hartzen... ikasten du.

Haurrak txiki-txikitik bereganatzen ditu etorkizuneko elikadura ohitura gehienak. Familia bada ere elikadura-ohiturak ezartzeko eragile nagusia, jangelan ere oso arduratsu jokatzeko dugu ikasle bakoitzarekin. Horregatik, ezetz esan aurretik pixkatxo bat probatzeko eskatzen diegu, eta plater bakoitzetik gutxienez jan behar duena adosten da. Mezu baikorren bidez saiatzen gara beti.

Jangelatik kanpo ikasleek jarduera desberdinetan aritzeko aukera izan dezaten saiatzen gara. Jolas eremuen antolaketa desberdina da eguraldia ona edo txarra izan, baina beti daude begirale kopurua hainbat eremu.

2 urteko ikasleek siesta egiteko aukera izaten dute horretarako prestatuta dauden bi gelatxoetan.

Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urtekoek bazkaldu ondoren 20 minutu inguruko atsedena egiten dute geletan, eta ondoren joaten dira eremu desberdinetara, jolas eta jarduera desberdinak burutzera.

Lehen Hezkuntzakoek kanpoko eremuetan, edota hainbat geletan, aukera zabala dute jolas eta jarduera desberdinetan aritzeko: kirola, jolas librea, marraztu, margotu, ordenagailu jokoak edo trebatzeko ariketak, irakurri, mahai jokoak, norberaren lanak...

Hauxe da ikasleekin landu eta erabiltzen dugun araudia:

JANGELAKO ARAUDIA : barruan eta kanpoan

Jangela garaian gure artean ondo moldatzeko, giro egokian egoteko eta gutako bakoitza ondo elikatuta egoteko oso garrantzitsua da ondorengo arauak ezagutu eta betetzea.

ARAUA

→ **Ikasturte hasieran begiraleak landuko du araudia bere taldearekin.**

JANGELA BARRUKOAK

1.- Bazkaltzera sartzerakoan eskuak garbituko ditugu (Meabe eta Bidebietan irakasleekin), baita gelara sartu aurretik eskuak eta aurpegia ere.

2.- Jangelako jarduna ez oztopatzeko:

- Ez dugu baloi eta antzeko jostailurik ekarriko.
- Sartu aurretik lasai itxarongo dugu kanpoan, eta atletik mahaira poliki sartuko gara.

3.- Bazkaltzerakoan:

- Behar den moduan eserita egongo gara.
- Txukun eta zikinkeriarik egin gabe bazkalduko dugu, ogiarekin eta janariarekin jolasean ibili gabe, eta tresneria egoki erabiliz.
- Ez dugu abestuko, ezta mahai batetik bestera oihukatuko ere.

▶ Begiraleak zerbitzatu arte lasai itxarongo dugu (kontuan izan mahaiko gehienek bukatu arte ez dutela hurrengo banatuko).

▶ Janari berri bat dagoenean, edo gustukoa ez denean, nazka aurpegia jarri gabe eta keinu desegokiak egin gabe, begiralearekin adostutakoa jango dugu esandako denboran (20 minutuan gehienez).

▶ Mahaikideekin eta begiraleekin tonu egokian eta errespetuz hitz egingo dugu.

4.- Bazkaldutakoan:

- Begiraleak esan arte eserita egongo gara.
- Platera jasotzerakoan, platerako hondarrak dagozkien zakarrontzira botako ditugu, eta platera ondo garbituko dugu.
- Laubidietan, 2. txandan, mahaia, aulkiak eta ingurua garbituko ditugu txandaka.

JANGELATIK KANPO

5.- Kanpoko eremuetako araudia geletan dugun bera da.

6.- Begiralea da denbora horretako arduraduna; beraz, berak dioena beteko dugu; eta, zerbaiten beharra dugunean, berarengana joko dugu.

7.- Saskietan dugun materiala erabili eta zainduko dugu.

8.- Gelako zerbait behar dugunean, begiraleari esan, eta bera arduratuko da (ahal duenean) behar duguna hartzeko gela ireki eta ixteaz.

9.- Gurasoen baimenik gabe ezin da ikastolatik irten, ezta jangelara etorri gabe gelditu ere.

Laburbilduz, **ikasleak ondo jatea, jaten ikastea eta gustura egotea da guretzat garrantzitsuena**, eta horretan ahalegintzen gara egunero.